

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sarrigurenako (Egues) Arreta Goiztiarra Emateko Zentroak garapen-arazoak dituzten 237 haurri eman die arreta urtarrilaren amaieratik

*Barcina Lehendakariak instalazio berriak, Iruñeko San Jose zentro zaharrekoen ordez eraikiak, bisitatu ditu*

Martes, 19 de febrero de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak, Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Allirekin batera, Egüesen izan da gaur, Sarrigurenako Arreta Goiztiarra Emateko Zentro berriaren instalazioak (Garajonai kalea, 49) bisitatzen. Urtarrilaren amaieratik zentro honek heltze-atzeratasuna duten 237 haurri eman die arreta.



Barcina Lehendakaria eta Alii kontseilaria zentrorako egindako bisitatu, bertako zuzendari Cristina Aguirrerekin.

Instalazio berria Iruñeko San Jose zentro zaharrean zegoenaren ordez eraiki da, garapen-arazoak dituzten edo izateko arriskuan dauden Otik 3 urtera bitarteko haurrei arreta emateko, haien behar iragankor nahiz iraunkorrei ahalik eta azkarren erantzuteko xedez.

Zentro honetan arreta ematen zaie garapen biologiko, psikologiko edo sozialean arrisku handia duten haurrei, ume goiztiarrei, atzeratasun ebolutiboa, mugimen-arazoak, asaldura kromosomiko edo sentzorialak, hizkuntza-arazoak edo harremanetarako nahiz komunikaziorako arazoak dituztenei.

Abian jarri zenetik, urtarrilaren 25etik, guztira 237 haur aztertu dituzte, horietatik 147 Iruñeko Haur Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Unitateetatik (UDIAT) bideratuak, 32 Iparraldetik, 26 Tuteratik, 15 Lizarratik, 13 Tafallatik eta 4 Zangozatik. Iruñeko haurren kasuan, gainera, esku hartzen du, baina gainerako haurrei beren



Sarrigurenako Arreta Goiztiarra Emateko Zentroaren kanpoaldea.

eskualdeetan ematen zaie era horretako arreta.

Zentroan 17 profesionalek lan egiten dute, Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Politiken departamentuetako teknikariekin koordinatuta. Eskaerak normalean iristen dira osasun-alorretik (neonatologiako, neuropediatriako, errehabilitazioko, otorrinolaringologiako, aurpegi-masailetakoko kirurgiako, osasun mentaleko eta pediatria-lehen mailako arretako zerbitzuak), gizarte-zerbitzuetatik (UDIAT), hezkuntzatik (haur-eskolak, eskolatzea) eta familiak eskatuta.

Instalazioek 592,32 metro koadroko azalera erabilgarria dute (651,44 metro koadroko azalera eraikia), azterketa-gunearen, esku-hartze gunearen eta gune komunen artean banatuta.

Azterketa-unitateak sei bulego ditu zerbitzua osatzen duten profesionalentzat: mediku bat, gizarte-langile bat, hiru psikologo eta zuzendaritza. Gune honetan dago, gainera, moldeen gela. Bestalde, esku-hartzeko unitateak fisioterapiako hiru gela ditu, psikomotrizitateko bost eta logopediako hiru.

Gune komunak dira harrerarako eta itzaroteko eremua, bularra emateko gelek, aulkitxoekin, aldatzeko-mahaiarekin eta bainugelek; instalazioen gela, biltegia eta garbiketa-gela; bulego partekatuak; bainugela-aldagelak; eta bilera-gela eta liburutegia.

Arreta goiztiarreko kasuak bikoiztu egin dira ia hamarkada batean. 2004an arreta 175 haurri eman zitzaien eta iaz, aldiz, 397 izan ziren guztira. Horietatik % 63 Iruñetik etorri ziren (250 haur), % 13 Iparraldetik (51), % 11 Tuteratik (46), % 6 Lizarratik (23), % 5 Tafallatik (20), % 1,7 Zangozatik (6) eta % 0,2 Altsasutik (1).